




259. zenbakia

• Otsaila 2026 •

pulunpe



Anue, Atetz, Basaburua, Imotz, Lantz, Odieta eta Ultzamako aldizkaria



LANEGUNAK

Libe Goitia Artetxe - Fast fatum (Susa, 2023)

Lanegunak
hainbeste pertsona sostengatzen.

Norbaitek esan diezadala zer esan nahi duen
bazterretan bizitzeak zer, bazterraren ertzak
ezagutzen ez baditugu.

Ez dut izaerarik ezabatu nahi
[gurasoena
aitita-amamena
gurea
nirea izango dena].

Izan ere,
egun ezberdinen loturak
jazotzen diren denbora tartean
gertatzen da heriotza.



Hautatu

3 hedabide

Komunitate
Helburu
Proiektu
Hizkuntza
Eskualde

bera

Km

komunikazioa



pulunpe

amezti

ARGITARATZAILEA AMETZA KULTUR ELKARTEA

PULUNPE SAREA

Euskara Zerbitzua, Gurutze, Patxi, Goizargi, Inma, Izaskun, Irantzu, Virginia, Josu, Arantxa, Maika, Itziar, Facebooken parte hartzen duzuenak, banatzaileak, etab... Barka lezaiguzue, aipatu ez zaituztegunok.

EMAILA

pulunpe@ametza.eus

ZENBAKI HONETAKO KOLABORATZAILEAK

Sareeko taldekideez gain, Txurdan, Denok Bat Elkarte, Iñaki Ezkurra Osakar, Bizi Odieta Komunitate Energetikoa, Ezpela Euskara Taldea, Ametza Kultur Elkarte eta Patxi Irurzun.

KOORDINATZAILEAK

Garazi Zabaleta eta Itziar Perez.

TIRADA

1.700 ale.

INPRIMATEGIA

Gertu.

MAKETAZIOA

Zas Komunikazioa.

AZALEKO ARGAZKIA

Dirdirak eta Dardarak jaialdia Imotzen. Egilea: Xabier Altuna.

LEGE GORDAILUA

NA 721/93

Inprimategira otsailaren 9an bidalia.

AURKIBIDEA

04

Gaurko gaia. *Zozketa Mundiala*

07

Ingurumena. *Antzandobi arrunta*

08

Kronika. *Denok Bat jubilatuen elkarte*

10

Albisteak.

13

Ekimenak. *Turismo irisgarria. Cederna Garalur*

14

Berezia. *Euskaldunok larri gabiltza II. Ezpela taldea*

16

Ekimenak. *Ahate etxaldea, Berueten*

20

Kultura. *Mexikortxo Band, EP berria*



22

Aspaldiko kontuak. *Miguel Elizondo ahuntzaia*

25

Ardo freskoa. *Zahartutakoan ere, errespeturik ez*

26

Zer irakurri. *Ultzamako liburutegia*

28

Zer ikusi. *amezti.eus-en*

30

Kirola. *Ander Uria eskalatzailea*

32

Jaiotzak, ezkontzak eta heriotzak. *Abendua*



Zozketa mundiala

135 sari banatu dira, auzolan ariketa handiari esker

Urtero bezala, Zozketa Mundialarekin eman diogu urteari hasiera Esan Erran irratian. Ilbeltzaren 4an izan zen Ametza Kultura Elkarteak antolatzen duen zozketa, irratitik zuzenean emititu genuena. Ekimena aurrera eramateko, ordea, jende askoren borondatea eta prestutasuna beharrezkoak dira urtero. Horietako zenbait aurpegi ekarriko ditugu orriotara, baita zozketak aurtien utzitako pasarteren bat edo beste

Urtero diogu, errazagoa dela Zozketa Mundialean sariren bat lortzea loterian baino... nork ez du ezagutzen zerri gizona, axuriren bat edo eskualdeko produktuz osatutako saskia irabazi duen norbait? Aur-

ten ere 135 sari banatu genituen Esan Erraneko estudioetan ospatu zen zozketan. Boluntarioz bete zen ganbara beste urte batez: txartelak kutxetan sartzea eta nahastea, saskitxoetako produktuak zorroetan

antolatzea, zozketarako muntatu beharreko guztia ganbaran sartzeara... beste behin, laguntza ematen aritu ziren horiei guztiei eskerrak emateko aprobetxatuko dugu tartea... eskerrik asko!

Feli Aleman, txartelen saltzaile fina (Etxaleku)



Noiztik saltzen dituzu Zozketa Mundialeko txartelak?

Ez naiz gogoratzen zenbat urte diren, baina asko! Esanen nuke zozketa abian jarri zenetik saldu izan ditudala.

Eta zergatik erabaki zenuen bere garaian parte hartzea eta laguntza ematea?

Tira, anaiak galdetu zidan eta baiezkoa esan nion. Oso ongi iruditzen zait ekimena antolatzea, garrantzitsua baita ibar hauetako albisteak ezagutzea eta elkarren berri izatea. Uste dut horregatik erabaki nuela laguntzea. Orain, egia da txartel gutxiengo saltzen ditudala, baina hasierako urteetan izugarri saltzen nuen, asko!

Sari potoloren bat banatu izan duzu orduan, ezta?

Bai, zerri gizona banatu nuen behin. Gainera, kasualitate handia



gertatu zen: erosketak egitera joaten naizen harategikoei saldu nizkien txartel batzuk, eta hara, haiei tokatu zitzairen zerria! Haiek, noski, ez zuten harategiko bonoa hartu nahi izan, zerria hartu zuten eta zerri hiltzea egin zuten familian.

Non saltzen dituzu txartelak?

Iruñean bizi naiz, Donibanen, eta batez ere inguru honetan saltzen ditut. Garai batean poltsan era-

maten nituen eta edonon saltzen nituen, ezagun guztiei, ekitaldiren bat baldin bazegoen, San Frantzisko egunean, elizeko ekimenetan, igerilekuan... beno, eta Etxalekuko lagunei ere bai, noski, bazkaltzeko elkartzan ginenean saltzen nizkien.

Ametzako harpidedun eta Pulunpeko zuzentzaile ere ba omen zara, ezta?

Ametzako bazkide naiz, bai, etxean

postaz jasotzen dut hilero Pulunpe aldizkaria, eta gustatzen zait irakurtzea. Nahiz eta kanpoan bizi eta eskualdeko jende asko galdu samar izan, batzuk ezagutzen ditut eta gustatzen zait hango berri izatea. Lehenbiziko gauza egiten dudana da jaiotzen, ezkontzen eta hildakoen orrira joatea! Eta zuzentzailearen kontuarena, bai, anaia Juantxori laguntzen diot bere testuei errepasotxo emanaz. Ahal den neurrian parte hartzen dut.

Miren Urritza, txartelen saltzaile eta Pulunpe banatzaile (Lantz)

Noiztik saltzen dituzu Zozketa Mundialeko txartelak?

Betidanik, zozketa martxan jarri zenetik!

Eta, sari bereziren bat tokatu al da noizbait zuen takotik?

Bai, asko tokatu izan dira, baina bereziki gogoan dut Lantzen zerri gizena tokatu zenekoa. Bestelakoak ere egon dira, dena den: gaztak, esneki sortak, ile-apaindegiko saria... nik uste urtero bizpahiru sari ateratzen direla, aurtengoa kenduta! Aurten deus ez zaigu tokatu! Pena da, etxez etxe aritzen naiz txartelak saltzen eta pozgarria da sariren bat jasotzea...

Etkez etxe ibiltzen zara txartelak saltzen, beraz?

Bai, tira, hemengo ostatuan ere jartzen dugu tako bat salgai, eta nire auzokide Raulek Iruñea aldean saltzen ditu, lagun artean. Berak 50 txartel hartzen ditu, eta besteak guk saltzen ditugu etxez etxe.



Miren Urritza, Lantzen Pulunpeak banatzen

Pulunpe banatzailea ere bazara, ezta?

Bai, ez dakit zehazki noiz hasi nintzen, baina duela urte asko. Herrian Ametzako arduradun batekin topo egin nuen, ez nuen ezagutzen, baina hizketan hasi ginen eta aipatu zidan Pulunpeak banatzeko norbaiten bila zebiltzala... eta animatu egin nintzen! Azkenean, hilabetero herritik paseotxo bat egitea ez da deus kostatzen!

Zergatik erabaki zenuen proiektua babestea?

Uste dut gauza polita dela, hemen heldu askok ez dakite euskaraz eta argazkiak besterik ez dituzte begiratzen, baina gaur egun inguruan ia dena gazteleraz daukagu, eta euskara hutsez egiten den gauza bakanenetakoa da! Orain, gainera, gazteek eta umeek badakite, beraz, ideia polita iruditzen zait eta horregatik babesten dut.



Estela Gordo, Udabeko Benta

Zozketa Mundiala sortu zenetik lagundu izan gaituzue, zergatik?

Bai, bai, ez genuen zalantzarik egin laguntza bila etorri zirenean. Hasieratik erabaki genuen zozketako otordua guk eskaintzea, donazio moduan. Beste jende eta proiektu batzuetan ere parte hartzen badugu, nola ez dugu parte hartuko eskualdeko ekimenetan? Egin dezakegun ekarpena da.

Jatetxean ere saltzen dituzue txartelak, ezta?

Bai, mahai eta kuadrila handiak ditugunean eskaintzen dizkiegu txartelak, eta batez ere eskualdeko jen-

dea denean. Izan ere, kanpotarrak badira zailagoa zaie gero sariak tokatuz gero jasotzea etortzea. Urte batzuetan takoa oso azkar saltzen dugu, beste batzuetan gehixeago kostatzen da...

Saria irabazi eta hona bazkaltzera etorri izan direnak, hemengoak izaten dira batez ere?

Gehienak bai, bailarakoak izaten dira, Ultzamakoak, Basaburukoak, Imozkoak... poza ematen du sariak hemen bertan gelditzeak, egia esan. Eta, betiko bezeroak direnean, are gehiago. Horiei ez diegu hemengo funtzionamendua azaldu ere egin beharrik, ederki ezagutzen dute eta!



Estela Gordo, Udabeko Bentako arduraduna ▲

Zozketako xelebrekeriak

Jokatuz Ametza lagundu nahian

Ez dugu aipatuko izenik, baina bada bat baino gehiago sartzen den ostatu guzietan txartelak erosten dituen. Zozkatzean, hor aipatzen ditugu 600-700 izen eta hortaz ohartzen gara nola erostun horien izenak agertzen diren behin baino gehiagotan, sarituak izan edo ez izan. Tako diferenteetako txartelak dituzte.

Zortearen magia

Txartelak editatzen dizkigunak ez digu txartelik erosten, baina azken urte hauetan bere arreba batek bai. Eta aurrean txerri bat tokatu zaio.

Aurrean zailtasunak izan ditugu herri batean, inor opatzen ez saltzeko prest; eta adineko emakume batek bere borondate ona erakutsiz, esan digu: Ez duzuela saltzailerik? Nik eginen dut. Eta hara, aunitz saldu du eta zortea ere izan du: sari handienetako bat tokatu zaio.

Besteren bat izan da txartel bat hartu duena, ezinbestean, eta bazkaltzeko saria tokatu zaiona!

Eta, azkenik, beste bati, bigarren aldiz, segidan, sari bera egokitu zaio. Harri-garria!



Pello Kañamares artelanaren egilea bera joan zen Erbitira saria Pakita Garrori ematera ▲

Laguntzaileak

Beren produktuekin laguntzen digutenak aipatu genituen joan den hilean, eta aunitz dira. Dena dela, ezezkorik ere hartu izan dugu. 2025-2026ko honetan zerbait eskatu eta hala esan zidan batek: guri ez digu inork mesederik egiten eta guk ere ez.

Ateraldia da gero! Pena eman zidan. Ez al gaude bizitza honetan elkarri laguntzeko? Hala erakutsi ziguten gure aurrekoak.

Zozkatzeko modua

Irratitik zuzenenean eman dugu zozketa, urtero bezala. Jendeak irratitik entzunez antzematen dio zozkatzeko mekanikari. Hala ere, bati baino gehiagori gustatuko litzaioke nola egiten den ikustea. Norbaitek bertatik bertara ikusi nahiko balu aski luke guri eskatzea datoren urterako. Eginen dugu tokia!



Antifaz beltza jantzita bidaiatzen duen hegazti ederra

Antzandobi arrunta izan dugu hilabete honetako ingurumen tarteko protagonista. Gure inguruko hegaztien errepasoa egiten ari gara azken aldian losu Alfaro biologo etsaindarraren eskutik. Gure inguruko belardietara oso lotua dagoen harrapari txikia da gaurko gonbidatua



Euskaraz 'arrunta' atzizkiarekin izendatu arren, ez da hain ohikoa penintsulan hegazti txiki hau. "Gutxienez hiru antzandobi espezie ditugu gure inguruan, baina antzandobi arruntaren kasuan, penintsulako iparraldean, gure zonalde honetan da arrunta, beste tokietan ez hainbeste", adierazi du Alfarak. Populazio dentsitate baxua du hegazti honek.

Migratzaile berantiarra

Uda garaian ikus dezakegu hegazti txiki hau gure inguruan, migrazio betean dagoenean. Orain, negu parte honetan, Saharako basamortutik hegoaldera egonen da, Mozanbiko inguruan. "Hegazti migratzailea da antzandobi arrunta, eta oso berezia da, hau baita gurera beranduen iristen diren txorietan azkenetakoa: udaberrian, apirilean edo maiatzean iristen dira gure oihanetara", azaldu

du biologoak. Etsain eta Burutain inguruan bi bikote behintzat badirela gaineratu du.

Migrazio bideari dagokionez, badu beste bitxikeria bat antzandobi arruntak: Sahara hegoalderantz jaisterakoan, zuzeneko bidea egin beharrean Afrikara Gibraltarretik barrena joan beharrean, Mediterraneo osoa inguratzen du, eta Egiptotik behera jaisten da Afrika ekialderantz. "Glaziazio garaian hegazti espezie honen aterpe izan zen mediterraneoko eskuinaldea, eta izotzak desagertu zirenean, espeziaren memorian gelditu zen migrazio-bide hori", azaldu du biologoak. Igotzerakoan, berriz, gehixeago urruntzen da: ia Somaliraino joaten dira, iparraldean, eta Turkia parera iristean hartzen dute ezkerraldera. "Horrela, udaberrian iristen dira hona, baina iparraldetik iristen dira, buelta handia ematen dutelako".

“Landareen arantzak erabiltzen ditu antzandobiak harrapakinak akabatzeko”

Atzamarrik gabeko harrapakaria

Oso hegazti polita da gaurko gonbidatua: harrak antifaz beltza darama begiak estaltzeko edo, bizkarraldea gorri-laranja kolorekoa, eta bularraldea berriz argiagoa, zuri antza. "Kolor horien nahasketa dela eta, belatz gorriaren antz handia du antzandobi arruntak, eta genetikoki txolarrearekin lotura estua du", dio.

Belardi, soro eta larreetan intsektuen eta ugaztun txikien ehizan aritzen da antzandobi arrunta. "Gainerako harrapariak izaten dituzten atzamarrik ez du izaten ordea, eta beraz, ehizatzeke beste teknika bat erabiltzen du: landaredia erabiltzen du, elorri beltza adibidez, intsektuak eta harrapakinak bere arantzetan ziztatzeke", gaineratu du etsaindarrak. Horregatik, gaur egun nonahi ikusten diren metalezko alanbre arantzadun horiek beharrean, garrantzitsua da biodibertsitatea mantentzeko landareen hesi naturalak mantentzea, heskaiak deitzen direnak. "Heskaietan bizi dira antzandobi arruntak, baina baita beste hegazti asko ere. Hor egiten dute kabia, eta hortik ateratzen dira ehiatzera", dio.

Batzar Orokorrak emandakoak eta urtarrileko ibilaldiak

2026 urteko lehenengo kronikan, batzar orokorraren inguruko xehetasunak eta azken hilabete honetan egin ditugun ibilaldien berri emanen dizuegu

Ohiturari jarraituz, urte hasieran egin ohi dugunez, iazko kontuen berri eman genuen urtarriaren 20an, Larraintzarko bentan. Bentako areto nagusian bildu ginen berrogehitik gora lagun, aurreko urteetan baino zertxobait gehiago izan ginen. Oholtza gainera, Mirenek, Gizarte Zerbitzuko teknikariak eta elkarte-ko lehendakariak, pantaila handia erabiliz, gaiak aurkeztu zizkiguten.

Lehenengo, 2025eko ekintzen errepaso laburra egin eta diru aldetik eragindako kontuak eman ziren. Kontuak, ekintzaz ekintza azaldu ziren, bakoitzean zenbat gastatu den eta nola ordaindu genituen azaldu zizkiguten.

Gaikako laburpena ere azaldu zizuten, eta bertan ikusten da zeregin sail bakoitzaren zenbateko diru sarrerak eta kostuak izan ditugun.

Azken lerroan, osotara zenbat sarrera eta gastu izan diren eta urteko emaitza ikus ditzakezue. Aurtengoa -5.529,75€ koa izan da, 2024koan gelditutakoak kontuan hartuta.

Hurrengo puntua 2026rako plana egitea zen eta horretarako, bertaritutakoei haien proposamenak egiteko eskatu zitzaizkien. Denon artean eztabaidatu ondoren, 2026rako egutegia betetzen hasi ginen. Lehenik eta behin, orain martxan dauden "arriketak" mantentzea eta indartzea adostu zen. Berriak ere entzun ziren, haiek landu beharko dituen aurrerantzean zuzendaritzak.

Bidaietan, Lisboa eta Grezia aukerak aztertzea eta Benidormekoa maiatzaren egitea adostu zen.

Zergatia	Sarrerak	Irteerak	Emitza
Iazkoak	0,00 €	6.189,01 €	-6.189,01 €
Agentziak	519,00 €	59.127,20 €	-58.608,20 €
Autobusak	0,00 €	10.747,00 €	-10.747,00 €
Bulego materiala	0,00 €	1.224,45 €	-1.224,45 €
Elizetakoak	0,00 €	340,00 €	-340,00 €
Gidak	198,00 €	3.909,36 €	-3.711,36 €
Jatetxeak	0,00 €	29.714,93 €	-29.714,93 €
Kilometrajeak	0,00 €	1.078,60 €	-1.078,60 €
Komisioak	0,01 €	201,00 €	-200,99 €
Kuotak	6.080,00 €	202,99 €	5.877,01 €
Monitoreak	0,00 €	9.870,93 €	-9.870,93 €
Musika	0,00 €	600,00 €	-600,00 €
N.G. Laguntzak	6.334,45 €	0,00 €	6.334,45 €
Partaideak	112.059,00 €	5.779,00 €	106.280,00 €
Plakak	0,00 €	1.135,67 €	-1.135,67 €
Sariak	0,00 €	480,06 €	-480,06 €
Telefonia	0,00 €	120,01 €	-120,01 €
Guztira	125.190,46 €	130.720,21 €	-5.529,75 €



Igoa eta Arrarasko mendiak ezagutzen



Taldea handitzen ari da! ▲

Txangoetan, hainbat aukera azaldu ziren, batzuk urterokoak, sagardotegia, Zarautz, Elizondo adibidez, eta beste batzuk orain dela bizpahiru urtekoak. Zaragozako Piedra monasterioa bisitatzera joateko ideia ere atera zen, nahiz egun bateko luzera izanen lukeen.

Festak, ohiturazkoak mantentzea adostu zen. Udaberrikoa, kalderete eguna, eta urte bukaerakoa, abenduan.

Azken gaia, zuzendaritzarena izan zen. Oraingoz batzordean nahikoa kide dauden arren, komenigarria



Bi taldeak Igoako Etxezaharrearen atarian ▲

ikusten da pixkanaka berritzen hasitea. Dena den, ez zenez kide berririk agertu, zuzendaritza taldea dagoen bezala gelidtu da momentuz. Behin batzarra bukatuta, Ostatura pasa ginen, Mirarik prestatutako otamena dastatzera.

Bestalde, urtarrileko azken astean egin ziren hilabete honetako ibilbideak. Luzea, Igoatik hasitako mendibilaldia izan zen, bertako gidari Leonziorekin.

Beste paseoan, Aizaroztik hasita, Jauntsarats eta Gartzaron aldetik ibili ziren. Ibilbide zelaitsuagoa,

nahiz batzuei uste baino luzeago egin. Osotara 11 kilometro egin ziztuztela kontatu baitzuten.

Ondoren bi taldeak, Igoan bildu ziren argazkia atera eta bazkaria elkarrekin egiteko. Giro bikaina izaten da egun horietan eta nabari da taldeak geroz eta handiagoak direla. Bejondeigula!



Igoako ostatuan, bazkaltzeko prest! ▲



Hurrengo alean, alde batetik sagardotegirako txangoa kontatuko dizuegu, otsailaren 19an egingen duguna, bidenabar Etxalarko herria ikusiz, eta beste aldetik, herrietako ordezkariekin egingen dugun bilera ere aipatuko dugu. Bitartean osasuntsu egotea opa dizuegu.



Denok Bat
Jubilatu Elkartea



Korrikak Atetz, Ultzama eta Odieta zeharkatuko ditu

Martxoaren 22an, igandearekin, iritsiko da gure eskualdera. Eguarastik sartuko da gurera 7:30ean, Xulapain zeharkatu ondoren; eta Ultzamatik eta Odietatik pasa ondoren, Iruñerako bidea hartuko du.

Bi urtean behin ospatzen den hitzordu garrantzitsua 24. edizioa prestatzen ari baita, eta, aurten ere, gure eskualdetik pasako da. Markalain atzean utzi ondoren, 7:27an sartuko da Eguarastik (Atetz). Ondoren, Gaskue, Gelbentzu, Lizaso eta Larraintzar igaroko ditu. Aurten gainera, berritasuna da Larraintzarren errepidetik iritsi baina ezkerrera maldan gora herri erdigunetik pasako dela. Eta eskola eta udaletxe ondotik pasa ondoren, Irai-zoko bidea hartuko du. Iraizotz, Zenotz, eta Gerendiain zeharkatu ondoren, Odietara joanen da. Han, Latasa, Erripa, Ziaurritz eta Ostitz ere igaroko ditu. Iruñerako bidea hartu aurretik. Korrikak 7:30etatik 10:00ak bitartean emanen du gure eskualdean, gutxi gorabehera.

Baina, dakizuenetz, euskararen aldeko ekimen erraldoia hiru egun lehenago hasiko da, martxoaren 19an, Atharratzen, eta hamaika egunez Euskal Herriko herritarrek korrikan jarriko ditu, lekukoa kilometroz kilometro eramateko. Martxoaren 29an amaituko da Bilbon. Eta,



aurten, AEKko antolakuntzak inoizko parte hartzaileena izatea du helburu. Horretarako, 3.436 lekuko-hartze izanen dira egingen diren 2.175 kilometroetan. Gainera, 460 herri igaroko dira. Kilometroak otsailaren 1etik aurrera erosi ahalko dira aplikazioan eta webgunean. Baina eskualdeko kilometroren bat erosi nahi duenak Mattin Cazabon, AEKko Ultzamaldeko arduradunarekin jarri daiteke harremanetan 636 97 39 23 telefonoan.

Urritzolako ihoteak oso parte-hartzaileak izan dira



Urtarrilaren 23an, ostiralarekin, hasi ziren, arratsalde, ohiko puske biltzearekin. Ondoren, bertako musikaz girotutako afaria izan genuen.

Larunbatean, herri osoak gosarian parte hartu zuen eta, gero, kopa erronda egin genuen. 20:00etan, Benistarren kontzertua izan genuen, karpa gainezka zegoe-

la, eta gaueko ordu txikiak arte oso giro ona egon zen, DJ Bakorekin ere. Arratsalde-gau partean otartekoak izan ziren, berriz indarra hartzeko eta dantzan jarraitzeko.

Azken ohar gisa, eskerrak eman nahi dizkiegu bertaratutako guztiei Urritzola-Galaingo inauterietan sortutako giro onarengatik,

eta gutxi batzuei gogorarazi nahi diegu herri hau txikia dela, dena auzolanean egiten eta antolatzen dela eta bisitariei jarrera zibikoak eta herriarekiko errespetuzkoak izatea eskertzen zaiela.



Iñaki Ezkurra Osakar



Bizi Odieta Komunitate Energetikoa abian da!

Irailean hasi eta abendura arte sei saioko formazioa jaso ondoren, Odietako herritar talde batek, Bizi Odieta Komunitate Energetikoa sortzeko erabakia hartu eta urtea amaitzerako forma eman diogu. Dagoeneko elkartearen erregistroan inskribatu eta martxan gara!

Herritarrek bultzatutako prozesu honek ilusioa eta konpromisoa batu nahi ditu Odieta bizigarriago bat eraikitzeko asmoz. Xede honekin, elkarrekin amesten ari gara aurrera eramateko proiektuak adostu eta hauek gauzatzen hasteko.


Zuk ere ekimen honekin bat egin eta Bizi Odieta Komunitate Energetikoko kide egin nahi baduzu, jarri harremanetan gurekin: biziodieta@gmail.com.



Bizi Odieta Komunitate Energetikoa



- PSIKOTERAPIA
- ORIENTAZIO PSIKOLOGIKOA
- ARAZOAK KONPONTZERA
BIDERATUTAKO TERAPIA
LABUR ETA ESTRATEGIKOA



- PSICOTERAPIA
- ORIENTACIÓN PSICOLÓGICA
- TERAPIA BREVE Y ESTRATÉGICA
ENFOCADA A SOLUCIÓN DE
PROBLEMAS

luzkipisiko@hotmail.com

Ane Buitrón (N-02107)

637 18 60 27



Amaitzear dira Euskal Herriko Mus Txapelketako herriz herrikako kanporaketak

Ale hau itxi baino lehen ezagutu ditugun azkenak Gartzarongo sailkatuak izan dira: Eneko Legarra ta Alberto Arangoa. Sei bikote aritu ziren bertan urtarrilaren 17an. Haiekin batera, badakizkigu beste hainbat herritako ordezkarien izenak. Izarpe Kanpineko Aroztegiko kanporaketan 19 bikotek hartu zuten parte eta hiru sailkatu ziren: Aimar Iribarrenek eta Beñat Astrainek osatutako bikotea; David Gomezek eta Jose Angel Torresek osatutakoa; eta, Ruben Mariñelarenak eta Mikel Zabaletak osatutakoa. Ordezkoak izanen dira Jon Etxeberria eta Javi Ramos. Irizotzen, berriz, hamaika bikote aritu ziren eta bi sailkatu: Arkaitz Iraizotzek eta Unai Larraiotzek; eta, Julen Errok eta Oier Martiarenak osatutako bikoteak. Ordezkoak, Amaia Elizondo eta Sofia Balda.

Alkotzen, Goikan ostatuan izanen da kanporaketa; eta, Aizarozkoa, Jauntsaraskoa eta Etxalekukoa finkatzea ere falta da. Otsailaren 22ra arteko epea dago. Ondoren, martxoaren 7an izanen da Iruñeko finala; eta martxoaren 28an Euskal Herriko finala, Billabonan (Gipuzkoa).



Hasi da Pala eta Frontenis Txapelketa

Basaburuko eta Imozko Kirol Batzordeak antolatzen du eta astebururo jokatu da Latasako frontoian, martxoaren 28ra arte.

Emakumezkoen Frontenis txapelketa eta gizonezkoen paleta goma txapelketaz ari gara. Aurten, osotara, 24 bikotek eman dute izena: lauk, frontenisen; bostek, pala lehenengo mailan; bederatzik, pala bigarren mailan; eta, seik pala hirugarren mailan.

Urtarrilaren 24an hasi ziren eta astebururo izanen dira partidak, Latasako frontoian, Imotzen. Eta, emaitza guztiak batzordearen weborrian aurkituko dituzue:

<https://basaburua-imotz.gune.app/kirolak/txapelketak/paleta-goma-eta-frontenis>



Informazio guztia, batzordeko weborrian



Turismo irisgarritako plana martxan

Cederna Garalur landa garapenerako elkarteak Mendialdeko lurralderako irisgarritasun plana lantzen ari da, 93.000 euroko aurrekontuarekin. Eskualdeak turismo-baliabide irisgarriak izatea da egitasmoaren helburua, eta Plazaola-Sakana-Ultzamaldea helmugako jasangarritasun turistikoko planaren barruan kokatzen da

Beste esparru askorekin batera, turismoaren alorra ere lantzen ari dira Cederna Garalur elkartetik, hain zuzen turismo inklusiboa sustatzeko tresnak bilatzen eta sentsibilizazioa bultzatzen. Zerbitzu eta produktu turistikoei irisgarritasun unibertsala bermatzea dute helburu, eta irailean abiatu zuten proiektua 2026ko lehen lauhilekora luzatuko da. Egitasmoa Europar Batasunak finantzatu du NEXT Generation EU funtsen bidez.

Helmuga turistikoa inklusiboak denontzat

Egitasmotik, turismoari buruzko jardunaldiak egin dituzte orain arte, erakunde publikoak, desgaitasuna duten pertsonen elkarteak, enpresak nahiz herritarrak gonbidatuz. Mahai-inguru, ponentzia eta elkarlan prozesuaren ondorioz, Irisgarritasun Turistikoaren Ituna adostu zuten. Oinarri hauek ditu itunak:

- Pertsona guztientzat helmuga turistikoa inklusiboak bultzatzea.



cederna garalur

- Enpresen, erakundearen eta herritarren arteko lankidetzaren sustatzea.
- Irisgarritasuna Tokiko ekonomia dinamizatzeko, publikoak zabalteko eta enpresa-sarea indartzeko aukera gisa ulertzea.

Irailean eta urrian elkarrizketak egin zituzten turismoarekin lotutako enpresetan irisgarritasunaren egoera jasotzeko: ostatueta, jatetxeetan eta turismo aktiboko eta kulturalen enpresetan egin zituzten elkarrizketa horiek, telefonoz. Guztira, 131 ostatu, 31 jatetxe eta turismo aktibo eta kulturalen 9 enpresa elkarrizketatu zituzten. Plazaolako eskualdean 75 elkarrizketa egin zituzten, eta Ultzamako eskualdearen kasuan, berriz, 37.

Irisgarritasun unibertsalaren lau ardatzei lotutako galderak egin zituzten horiei guztiei: irisgarritasun fisikoa, entzumenekoa, ikusmenekoa eta kognitiboa. Horrekin batera, langileek desgaitasuna duten pertsonak atenditzeko duten prestakuntza ere aztertu zen. Elkarrizketetan jasotako informazioa aurrera begirako lanke-taren abiapuntu izanen da.

Ondorio nagusiak

Egitasmoaren bultzatzaileek sumatu dute establezimenduetako neurri gehienak sarbideetan eta barne-mugikortasunean ezarri dituztela. Ikusmenari, entzumenari eta kognizioari lotutako neurriak ez dira hain agerikoak, baina enpresa askok beste alor horietan formakuntza jasotzeko prestutasuna adierazi dute.

Hain zuzen, urtarrian ari dira turismo irisgarriari buruzko formakuntza egiten lurraldeko turismo eragileentzat. Jardunaldien helburua da sentsibilizazioa bultzatzea eta pertsonen nahiz establezimenduen tresnak ematea. Datozen hilabeteetan irisgarritasun-premiak dituzten pertsonentzako arretari lotutako formazioarekin segiko dute lanke-tarekin, bezero-arreta duten eragile turistikoa guztiei zuzenduta. Horrekin batera, Plazaola-Sakana-Ultzamaldea eremuan Turismo Baliabide Irisgarrien Katalogoa eta Turismo Produktu Irisgarrien Katalogoa egin dituzte.



Euskararen egoera ongi aztertzen duten bideo bikainak

Aurreko Pulunpen UEMak sortu dituen 11 bideoetatik lehen seiren laburpentxoak jarri genituen. Oraingoan azken bostenak. Eta hemen QRa den-denak jaso ditzazun. Ez zara damutuko. Oso-oso ongi taxutuak daude, oso ongi. Hizlaria ere bikaina da



Galeraren arrazoiak

Euskalduntzearen kaltetan, erdalduntzea bultzatzen duten faktoreak indartsuagoak dira. Zergatik?

Batetik, egoera soziolinguistikoaren eraginagatik.

Bestetik, botere egiturengatik.

Lan merkatuan ere, erdara ezinbesteko hizkuntza da ia kasu guztietan. Hedabideetan, pantailetan eta kultur kontsumoan ere askoz handiagoa da erdarazko eskaintza.

Euskal Herriko toki gehienetan euskaraz bizitzen ahalegintzea, kontrako norabidean aritzea da. Oso nekagarria.

Egitura soziopolitiko eta linguistikoak gogor egiten du erdalduntzearen alde. Euskaldunen jarrera aktiboagatik ez balitz, berez etorriko litzateke euskara galtzea.

Belaunaldi berriak

Ahalegin handia egin du herri honek euskalduntzearen alde eta bereziki haurrak euskaldun hazteko. Bai etxean eta baita eskolan ere.

Belaunaldi berriek hizkuntza ikasten eta erabiltzen ez badute, euskarak ez dauka etorkizunik.

Orokorrean, gaur egungo haurrek euskara gehiago jasotzen dute etxean eta eskolan beren gurasoek jaso zutena baino. Hori ere indargunea dugu, euskararen aldeko jarrerarekin batera.

Lurraldea eta nagusitasuna


Euskara nagusi duten auzo, herri eta eskualdeei _arnasgune_ deitzen diegu, eta bertako hiztun gehienek euskaraz erdaraz baino errazago egiten dute.

Euskal Herriko testuinguruak ez dira neutroak: ingurune batzuk euskararen alde bultzatzen dute, eta beste batzuk erdararen alde. Kontua da testuingurua oso kontrakoa dugula: 10 euskal hiztunetatik 9 erdara nagusi den udalerrietan bizi dira. Euskara nagusi duten udalerriek oso pisu txikia dute.

Arnasguneen garrantzia

Euskara indartsuago dagoen lurralde-eremuak berebiziko garrantzia du euskararen biziraupenerako eta garapenerako.

Bilakaera-datuak, ordea, kezkatzen modukoak dira: euskara nagusi den eremua txikitzen eta ahultzen ari da, eta gainbeherak ez du etenik. Azken 20 urteotan, gainera, areagotu egin da atzerakada. Galerak abiadura berean jarraituz gero, hurrengo bizpahiru hamarkadetan arnasguneak desagertuko dira. Horrek euskararen herria ahulduko luke, eta eragin nabarmena izanen luke euskararen biziberritzean.



Gure alderdian euskararen aldeko ekimen guztietan aurre-aurrean ibilitakoak: Josu eta Antonio

Etorkizunari begira: olatu euskaltzale berria eta sendoa

Hitz gutxitan: euskara minorizazio gorrian dago. Bai gaitasunean, bai erabileran, bai transmisioan, bai hizkuntza-bilakaeran eta baita lurralde-nagusitasunean ere. Hurbil dugu hizkuntza-heriotz egoera.

Esku hartu ezean, euskararen aldeko politika sendorik gabe eta euskaltzale kontzienteen bultzadarik gabe, euskarak ahultzera joko du.

XXI. mendeko euskaldunon erronka hauxe da: egoeraren larritasunaz jabetzea eta euskara gure lehentasun pertsonal, sozial eta politikotara ekarriko duen **olatu eratzea**.

Guztioi dagokigu olatu berri hori osatzea eta indartzea.



*Ezpela Euskara Taldea
(Ultzamaldea)*



Pulunpeko zozketan musutruk parte hartzen duten ostatueta batzuk



Urtarrilaren 4an izan da **Zozketa Mundiala** eta 135 sari banatu ditugu. Haietako batzuk eskualdeko hainbat ostatu doan eskaintzen dituzte. Gure hedabideendako **izugarrizko laguntza** da hori. Ostatu guztien publizitatea ez denez ale batean sartzen, apurka-apurka joanen dugu ateratzen.



Iraizoko Ostua
San Martín kalea, 18
31797 Iraizotz
948 30 53 28
posadadeiraizotz@gmail.com



“Ahate etxaldea martxan jarri nuenean ez zegoen horrelakorik inguru hauetan”

Berueteko Mikeltoneko Bordako Jose Joaquin Barberena Etxeberriarekin izan gara erreportaje hau osatzeko. Duela 16 urte inguru ahate etxaldea martxan jarri zuen etxean, esne-behiak kentzea erabaki eta gero. Dioenez, fabrikara joatea baino nahiago zuen lehen sektorearekin lotutako zerbait bilatu, eta horrela sortu zen ahateen aukera



Jose Joaquin Barberena Etxeberria, ahate etxaldea atzean duela ▲

Esnetarako behiak izan zituzten betidanik Berueteko Mikeltoneko Bordan, eta Barberenak ere etxeko bizibideari segida eman zion urte askoan. Duela 16 bat urte, ordea, aldaketa bat egin behar izan zuen. “Etxeko pabilioia zahartua zegoen eta esne-behiekin segitu nahi bagenuen inbertsio berrikuntzak egin beharra genituen”, gogoratu du ekoizleak. Inguruan antzeko esperientziak zituzten beste abeltzain batzuekin hitz egin zuen aukera horretaz, eta haiek ez zioten gomendatu, inbertsio handiegia zela

eta merezi ez zuelakoan. “Ahal zela baserria mantendu nahi nuen, eta beste aukera batzuk begiratzen hasi nintzen momentu horretan”, dio.

Muga inguruko etxaldeak eredu

Ultzamaldean ez zegoen ahate etxalderik garai hartan, baina Barberenak hurbilean bazuen eredurik. “Nire arrebak Etxalarren ahateak zituen, eta muga inguruko zonalde horretan bazeuden etxalde gehiago”, azaldu du. Horrela bururatu zitzaion Berueten ere funtzionatu

zezakeela, eta etxean pabilioia jarri zezakeela. “Hasieran Frantzian erosten nituen ahateak, hemen haztegi oso gutxi zeudelako, baina hegazti gripearen kontuarekin muga pasatzeko arazoak sortzen hasi ziren, eta orduan sortu zuten ADP enpresa”. Agropecuaria Del Pato enpresarentzat ari da azken urteetan lanean beruetearra, autonomo gisa. “Nafarroa osotik ditu etxaldeak enpresa horrek, eta haiei erosten dizkiet ahateak, eta haiei saltzen diet gero”, kontatu du.



Izan ere, abeltzainak kontatu duenez, hiru fase desberdinetan banatzen da ahateen hazkuntza: 0-21 egun bitartean, ahate txikiak direnean itxitako pabilioietan berogailuarekin hatzen direnekoa da lehenengoa; 21 egunetik 2 hilabete eta erdira bitarteko fasea da bigarrena, kanpoan ematen dutena; eta hirugarren fasea, pabilioi barruan hamaika egunez paparoa betetzen dieten fasea da. Mikeltoneko Borda ondoko pabilioi txikian hirugarren zati hori bakarrik egiten dute. 900 bat ahate hartzen ditu txanda bakoitzean, eta 11 egunez izaten ditu pabilioian, hiltegiara bidali aurretik paparoa betetzeko. Irin eta urarekin egindako pasta batekin betetzen die paparoa Barberenak, egunean bitan.

Gure eskualdean, Etsainen badago ADPren etxalde bat, eta han bigarren fasea ere egiten dutela azaldu du beruetearra. “Nafarroa osoan ditu etxaldeak enpresak, Aldaban, Lerinen, Uharte-Arakilen, Etxarrin... eta ahate-hiltegia ere Lerinen dago, enpresarena da”, gehitu du. Haragitarako, lumekin edredoiak edo berokiak egiteko, gibelarekin pateak egiteko... zerriarekin gertatzen den bezala, ahatek ere dena aprobetxatzen dela nabarmendu du abeltzainak. “Grasa bera ere era-



Paparoa, hegazti migratzaileen erreminta

Ahateak gizenetako etxaldea da Berueteakoa, eta horretarako, egunean bitan betetzen diete paparoa, urarekin eta irinarekin egindako pasta batekin. Elikagaiak gordetzeko duten zintzur-hesteko poltsa formako zabalgunea da paparoa, ahateen izaera migratzaileari lotutakoa. “Migratu aurretik betetzen dute paparoa ahateek, bidaian zehar elikatu ahal izateko. 12 ordutan jaten du ahateak paparoan gordetako”, kontatu du abeltzainak.

biltzen da kremak eta bestelakoak egiteko”, dio.

Abeltzaintzaren egoera

Ahate etxaldeaz gain, haragitarako behiak ere baditu Barberenak, etxeko lursailak garbi mantentzeko darabiltzanak. “Esne-behiak kendu genituenean jarri nituen haragitarako behiak, lursailak garbi mantentzeko helburuarekin, baina, egia da, niri benetan azienda kanpoan izatea gustatzen zaidala, hori dela benetan gustuko dudana. Baina horretatik ezin dudanez bizi, ahate etxaldea jartzea erabaki nuen”, dio zintzoki.

Abeltzaintzak hartu duen norabidearekin ere kezkatua azaldu da beruetearra. “Ahateekin, behiekin, zerriekin... guztiarekin gauza bera gertatu da, intentsifikatu egin da dena, eta uste dut akatsa dela hori. Nekazaritza Politika Bateratuko — PAC — laguntzek babestu dituzte ustiategi handiak, txikia lagundu beharrean”, dio. Ahateen ekoizpenari ere ez dio etorkizun oparoegia ikusten, izan ere, ADP enpresatik kanpo bost autonomo besterik ez direla geratzen kontatu du, gainontzekoak enpresaren lantegiak dira, eta pixkanaka galtzen joanen direla pentsatzen du.



Frantzian, ahate etxalde txikiak

Estatu frantsesetik iritsi zen gurera ahatearen kultura, eta han askoz ere zabalduago dagoela kontatu du ekoizleak. “Gainera, han badira enpresa bati lotuta ez dauden hiltegi txikiak, eta horrek aukera ematen die ahate ekoizle txikiei. Ohikoak dira han ahate etxalde txikiak, hiru faseak egiten dituztenak eta salmenta ere haien gain hartzen dutenak”, dio.



Talde argazkia, Igoan



Bertso-afaria, Etxalekun. Joanes Ilarregi eta Ane Labaka izan ziren eta Endika Legarrak jarri zituen gaiak



Urritzola-Galain



Errege bezperako puxka biltzean, kantari, Etxalekun



Urritzola-Galaingo gaztetxoak, ihoteetan



Bildutakoak dastatzen, Etxalekun, errege bezperan



Bohumil gerlari bihurtu zaigu baina ostatua eramaten jarraitzen du Sararekin batera. Igoako ihoteetan



Igoako ihoteetan, dantzan



Ihoteetako pestan, Urritzola-Galain



Mozorro anitz, Urritzola-Galain



Zorionak Amaia!



EP berria atera du Aizarozko taldeak

Pancho Villaren corridoak kantatzen ospetsua egin da Aizarotzen sortutako taldea, eta EP berri bat atera berri dute. Gainera, aurtengo abenduan 15 urte beteko dira haien lehenengo kontzertutik. Orduan jaio ziren herriko pestetan musika jartzeko asmoz; baina, eskualdetik kanpo ere ibili dira, baita Euskal Herritik kanpo ere

EP berriak lau kantaz osatuta dago baina, gainera, kanta bakoitzak bere bideoa ere badu. Nabarmentzekoak dira *Basaburuko Korridoaren* eta *Santxikorrota* kanten bideoklipak, dron eta guzti grabatu baitituzte -Zer ez ote zuen egingo Pancho Villak iraultzan dron bat izan balu!-. Bai, *villistok* modernizatu zaizkigu, eta ez bakarrik dronen erabileragatik, izan ere, EPa ez dute CD batean banatu, ardo botila kortxo batean baizik! Kortxoak USBa du barruan kantak deskargatzeko. Eneko lurramendi 'tinto' ahotsa eta gitarrarekin; losu Jauregi bigarren ahotsa eta gitarrarekin; eta Gorka Ramirez tronpetarekin bildu gara. Haiekin batera *Peio Bosnio* aritzen da baterian eta Ernesto Prat, beste tronpetan.

Lehenengo kanta Basaburuari eskaini diozue: *Basaburuko korridoa*. Zer kontatu dezakezue kanta honi buruz?

Eneko lurramendi 'Tinto': *El corrido de Mazatlán* kantaren doinuarekin egindako kanta da. Guk ez genuen ezagutzen baina gurekin urteetan ibili ziren Udabeko Patxi eta Itsasoko Javier Azpikotxe. Azpikotxek tronpetarekin urteetan jo omen zuen kanta hori Itsasoko txaranga. Berak oso erraz jotzen zuen eta halako batean pentsatu genuen doinua aprobetxatuko genuela eta hemengo ingururekin lotu.

losu Jauregi: Kanta honekin bandaren aurkezpena ere egiten dugu, nolabait.

"Itsasoko haizea" (Azpikotxe), "Udabeko egurra" (Patxi), eta Basaburuko gauzeekin. Basaburuak corrido bat izatea nahi genuen.

Eta orain, badu. Bideo polit polita egin duzue, gainera. Nola grabatu duzue?

Peio Bosnio bideogintzan ibilitakoa da, ikus-entzunezko gradu bat ikasi zuen eta beti izan da zalea. Basaburuko Korridoak 13 herriak aipatzen dituen ezinbestean izan behar zuen bideo bat, mundu guztiari erakusteko zein ziren txoko polit horiek. Lagun bati lur orotariko ibilgailua eskatuta

herriz herri ibili ginen, mendian gora eta mendian behera traste guztiekin, irudiak hartzen. Eta dron bidez hartutako irudiak ere badaude, bideo profesional baten moduan! Harrigarria badirudi ere nahiko txukun gelditu da.

Eta, zer kanta gehiagok osatzen dute EPa? Bata ezaguna genuen, *Santxikorrota*.

Tinto: Agerraldia elkarrekin, Errigoraren babesean sortutakoa, haien jarduna promozionatzeko Santxikorrota herri lasterketa bat antolatzen du. Santxikorrota XV. Mendeko bidelapur euskaldun bat zen. Kasu



Ezk-esk eta goitik behera. Tinto, Gorka Ramirez, Ernesto Prat, Josu Jauregi eta Peio



honetan, doinua *Los Tigres del Norte* talde famatuaren kanta ezagun bat da *El Tahur* izenekoa, letra nazkagarria duena, baina doinua abesteko erreza da eta dantzarako polita. Doinu hori probestu genuen Euskal Herriko bidelapur bati protagonismoa emateko eta Erribera aldean euskarari ere bultzada bat emateko asmoz. Bideoak ere baditu urte batzuk, lagun artean egin genuen. Hura ere txukuna eta polita dela esan dezakegu parajea zoragarria delako eta gainera zeru urdin urdina zegoen egun bat tokatu zitzaigun.

Gorka: Jende askok parte hartu zuen bideoan. Eta horrek ere lagundu zuen izugarri.

Eta, Denbora ez da pasatzen, hurrena.

Iosu: Jon Maiaren bertso batzuk dira. Askok dira eta guk hiru hartu genituen. Lehenengoa eta hirugarrena Jon Maiarenak dira, baina erdikoa Tintok moldatu zuen. Aurreko kanten letrak ere Tintok egin ditu, berea da meritua. Hau amodio historia bat da, amodioa eta desamodioa ikusten ditugu.

Tinto: Baina Pancho Villa aipatuz eta gurera ekarri. Amodio eta desamodio kanta bat, taberna giro *villista* batera ekarri; eta, batez ere, laburtuz, Jon Maiak Hezur Beltzak taldearen dako prestatu zuena ikaragarri luzea delako. Baina doinua zoragarria da eta dantza egiteko, hau ere, oso polita.

Eta, uste dut, jaso duzuela Jon Maiaren iritzia, gustatu al zaio?

Tinto: EPa atera aurretik, Iruñeko alde zaharrean bideo bat grabatu genuen eta hori ezagutzera eman aurretik, Jon Maiaren helbidea lortu genuen eta idatzi genion. Garbi utziz ez geniola idazten baimena eskatzeko, villistok ez baitiogu inori baimenik eskatzen (irriak), baina edukazioz, bera izan zedin lehenengoa bideoa



EPa, kortxo batean

Taldeak baditu oraindik ale batzuk eta interesa duenak irratiarekin jarri daiteke kontaktuan. Iosu Jaurregi: “Jendeari ematen diozunean esaten dizu (goibel samar): “Ah, kortxo bat, mila esker... ah anagrama ere baduela...”, eta esan behar diegu: “baina ireki ezazu! (irriak)”. Garai batean LPak zeuden: iraupen luzeko diskoak; eta, Singleak: kanta bakarrekoak; Tinto: “Bada, gurea tartean legoke, EPa: Erdi-Purdiko diskoa, alegia! (irriak)”.



Basaburuko
Korridoaren
bideoa
ikusteko

ikusten. Gure harridurarako erantzun zigun eta ikaragarri gustatu zitzaiola esan zigun. Benetako mexikar batzuk bere abestia kantatzeko garaia bazela ere! Garbi dago ez gaituela ezagutzen (irriak), baina gustatu zitzaiola eta ea noiz elkartuko ginen tekila batzuk hartzeko ere galdetu zigun. Grazia eta ilusioa egin zion nonbait.

Eta, azkenik, Pancho Villaren pertsekuzioa. Honek melodia ezaguna du.

Iosu: Erdaraz den bakarra. Mexikar iraultzan gertatu zena kontatzen du,

Pancho Villa eta haren soldaduek Estatu Batuetan sartu ziren eta hiri bat hartu zuten: Columbus. Ondoren, bueltan etorri zitzaizen “la expedición punitiva”.

Tinto: Gure kanta kontatzen duena da nola 10.000 soldadu Mexikar lurraldeetan sartu zirela, inori baimenik eskatu gabe, Pancho Villa harrapatzeko eta Estatu Batuetara eramateko asmoz, epaitzeko eta, ziur, fusilatzeko. Baina ez zuten lortu. Horrek gaurkotasuna du nolabait duela gutxi antzeko zerbait gertatu baita. Estatu Batuak Venezuelara sartu dira propio pertsona bat harrapatzeko, Nicolas Maduro. Kasu honetan, zoritxarrez, harrapatu dute eta epaitzera eraman dute.

15 urte betetzen dituzuen honetan, Aizarozko hurrengo Neguko Pestak mundialak izanen dira, ezta? Alkateak zer dio? (Tintori, bera baita Aizarozko alkatea)

Tinto: Ez dakigu, ez dakigu! Taldea pestak girotzeko eta herritarrak kantatzen jartzeko sortu zen eta horrek badu arrakasta. Talde bat hartzea baino merkeagoa da eta jendeak es-timatzen du, oso gustura egoten da.

Iosu: Azkenaldian azken urteetako hiru formatuak batuz egin dugu: *Cojon Prieto* eta *Guajalotesi* egin genien omenaldia, Kubakortxo eta Rumbakortxo. Nahasketa egin genuen eta jendeak parte hartu zuen eta primeran pasatu zuen.

Gorka zu azkena izan zara sartzen.

Bai, ni izan naiz azkena. Bigarren tronpeta naiz, beraz ni bekaduna naiz (irriak). Bekaduna eta iruzurtia, gainera, nik ez baititut grabatu EPko kanta, aktore lanak besterik ez ditut egin. Baina zuzenekoan, bai, zuzenean jotzen dut e!



Aroztegi-Oskotz

Etxaleku-Oskotz

Ahuntzaiaren bizitza

Ahuntzak zenbat gose ez ote du ase? Ahuntza *pobreen azienda* zela esan zidan orain urte batzuk Atezko gizaseme batek, baina idatzi dudan bezala zenbat gose ez ote du ase? Aspaldian gure osaba Joxe Angelek 1918an jaio zenak, hala kontatu zidan: *guk ez genian ahuntzik, baina guri gustatu egiten eta aitari ahuntza erosarazi. Murtziatik ahuntzaia, bere ahuntz saldoa hartu eta herriz herri saltzen zebilen bati erosi genioken pare bat buru. Esnezuek hituen baino hanketatik beratzak, maingutzen, apatxak hondatzen hemengo hezetasunak. Jakina, Murtzian beti lehor izaten baituk!*

Aroztegin hesten ez

Aroztegira joan zen ezkontzaz Margarita Jauregi Aranguren, Erason jaioa eta Zarrantzen bizi izan zena. Aroztegira ezkondu Miguel Elizondo Goñirekin eta bertan bost ume izan zituzten, baina Margaritak hesten ez eta Imotz aldera etorri nahi. Aroztegi-giko **Goitikoetxean** bizi ziren noski edo hurbileneko etxean. Bertan jaio-tako haurrak: Estefania, Francisca, Martina, Jose eta Isidro.

Oskotzen **Urtzutegia** libre gelditu zen eta, etxe honetara etorri zen maistar familia guzia 1915ean. Etxea oso-oso zaharra omen zegoen eta etorri aurretik oholez eta konpontzen aritu omen ziren. Oskotzen beste haur bat izan zuten, Martin, 1917ko maiatzaren 30ean jaioa.

Baina Oskotz laster utziko zuten, hiru urte eginen zituzten bertan eta Etxalekun ahuntzaia behar zutela eta hona etorri zen familia guzia, gurasoak 6 umerekin. Etxalekun beste bi haur izan zituzten, Josefa eta Maria (Luisa), 1921ean eta 1925ean jaioak, hurrenez hurren.

Miguel Elizondo eta Margarita Jauregi

Ahuntzaiaren kontuak aspaldikoak dira eta garai haietako ia inor gutxi bizi da. Bizi direnak haurrak ziren eta oroitzen lauso batzuez gain, kontu gutxi dakite. Hala ere zaharragoi

entzuna dut nik zerbait eta dakidan gutxi hori kontatuko dugu.

Miguel oso-oso maitatua zen, gizon umila, gozoa eta lagunkoia izateaz gain, bere egitekoa oso zuzen egiten zuena baitzen. Bere egitekoa zorrotz betetzen zuena. Sagarrondo eta abar txertatzen ere abila zen gure Miguel.

Izugarrizko memoria omen zuen, eta jendeak zerbaiten data jakin behar zuenean toki segurua zuen Miguelengan.

Margarita, andrea, eskuzabala ha-

lakoia, nahiz jenio bizi samarrekoa izan. Hori dut aditza.

Ahuntzaiaren lanen berri

Goizean, urte guzian, eguraldia ez bazen anker hutsa, tutua jotzen zuen eta etxe guzietako ahuntzak biltzen ziren batera eta ondoren Migelek han eramane zuen ahuntz taldea, bazkatzera. Etxalekun talde bizkorra izaten zen, 100 burutik gorakoa bai. Gehienetan **Goitiko Oianean** ibiltzen zuen ahuntzaldea, larre eta sasi aunitz zen tokia baitzen. Eta gutxiago-



Margarita eta Miel, xahartuak, Gartzineko larrainean ▲



tan **Beitiko Oianera** ttikiago izateaz gain, pagadi hoberenak ere bertan izaten ziren eta mendia ahuntzen hortzetatik libreago nahi izaten zen.

Ilunabarrean denak etxera, Miguel bere saldo guziarekin. Ez zuen deus egin beharrik, ahuntz bakoitzak bere etxera zuzen demonio alde egingen baitzuen, marrakaka. Antxumee-kin izan edo, nahiz kenduak izan,

oraindik esnean zeudenak, errapea lasaitzera. Esan duguna, ahuntz es-nea ugaria izaten zen eta oso-oso estimatua. Makina bat gose kentzen zuen!

Lana arina, baina ordu asko sartu beharra, goizetik arratseraino. Ez zen jai egunik, ez zen oporrik! Egu-nero atera behar izaten ziren larrat- zera, larre eta, batez ere, sastraka

artean. Ahuntzaia egun guzia saldoa- ren atzetik **landa** bidea har ez zezan.

Esan dugu Miguel gizon umila, esa- nekoea eta zuzena zela, baina dirudie- nez lapurrak ez zituen asko maite!

Hau ez da horrela geldituko

Urtean urtekoa kobratzen zuen or- duan, beste lanbide askotan beza- la. Kontuak behin egiten ziren eta Urteberritan izanen zen agian edo, San Blasetan, otsailaren 3an, egun horretan egiten baitziren herriko kontuak ere.

Tonto listo asko dago gaur. Lehen ez hainbeste baina...

Dorrotzarrean bizi ziren bi anai, Joxe Ramon eta Miel. Eta Joxe Ra- mon ahuntzen kontuak egitera joan omen zen ostatura. Han zorrak or- daindu ahuntzaiari, duro bat, eta ahuntzaiak soinu aterarazi, eta ona, ez zen faltsua. Eta Joxe Ramonek zer egingen eta, ustez oharkabean, txanpona kanbiatu eta faltsua sartu. Baina Miguel ohartu eta kargu hartu:

-Hau e'ztuk neria! Karrak duro hori; hori neria duk!



Hemen direnak Gartzinean, azpiko aldean: Jose, Martin eta Martina Elizondo; Margarita eta Miel, protagonistak; Josefa eta Isidro Elizondo; eta ezezagun bat

MANTENTZE - LANAK · INSTALAZIOAK · KONPONKETAK · ARGI PUBLIKOAK
PROYEKTUAK · AURREKONTUAK · BOLETINAK ETA ZIURTAGIRIAK



KARIKOLAR
ELEKTRIZITATEA

722 766 835

LIZASO · karikolaregoitz@gmail.com



-Ez, hori ez'tuk nik emana! –Joxe Ramonek.

Eta Joxe Ramon tematu berean, gogor jarri eta Miguelek sutondoan zegoen burtziña hartu eta kopetan bete-betean jo omen zion. Kopetan zuloa, odola arrataka eta honela erantzun omen zion:

-Hori hiretako.

-Hau ez'tuk ez hola geldittuko! –Joxe Ramonek.

-Ez, ez, hori ez'tuk hola geldittuko. Hori, hazi iñen'zaik!

Kontu egunetan izaten ziren konpondu beharrekoak eta sesioak ere bai askotan. Urte hartan hori izan zen iskanbila. Ez zen atzenezkoa, ez horixe!

Oharra: Lehenagotik ere ezagunak zituen Miguelek bi anai horiek, Joxe Ramon eta Miel Oskoztik etorriak izaki. Dena dela, oso urte gutxi eman zuten bi anai hauek eta beren amak Etxalekun, 1922an edo etorri zen familia

osoa, ama hiru semerekin (Hirugarren anaia Inklusakoa zuten: Eusebio Sanchez Exposito), eta 1930erako gutxienez alde eginak ziren ama eta Aizpun bi anaiak. Gertakari hori kenduta, erreto gutxi utzi zuten bi anai hauek, Aizpun Enderitz deitura zutenak, Aginagatik Oskotza 1902an etorriak, Etxaldera aurki, Etxotonera ez bada (biak itsatsiak daude).

Berriz ere Oskotza

Ahuntzak ez ziren oso ongi ikusiak. Diputazioa kontra izaten zen, ahuntzak mendian egiten dituen kalteak ikustekoak baitira!

Horrela, gerra ondorenean bukatu zenazienda hau eta 1948ean edo, Miguel eta Margaritak aukera hobea ikusi zuten Oskotzen **Juantxenea** hustu zenean, jabea, Pablo Iribas, Iruñera joatean. Eta Elizondotarrak bertara lekualdatu ziren eta etxe honetan bizitu ziren urte bakar batzuek. Berriz ere Iribasek Iruñeko bizitza

modua gustatzen ez eta atzera egin zuenean atera ziren.

1951. urtean, Isidro Elizondo semeak, mendi lanetan bere kontu aritutakoa dirutu eta, **Gartzinea** erosi zion Pedro Ostitzi eta bertan jarri ziren bizitzen laster.

Ondoren **Erdabideko bordako** Saturnino Ollakarizketa Maria Luisa Elizondorekin ezkondu zenean, 1958an, **Gartzinean** jarri ziren bizitzen gure bi protagonistekin.

Margarita 1960-01-03an hil zen **Gartzinean** eta baita Miguel ere, 1961-11-24an. Oskozko kanposantuan ehortzi zituzten.

Aspaldi joan ziren, baina oraindik ere bagara gogoan ditugunak, bakarren batzuk, ezagutu zituztelakoz eta beste batzuk haietaz kontatu digutelakoz. Eta bere familiakoek zer esanik ez, oso-oso gogoan dute gure ahuntzai maitekorra. Eta Ollakarizketa-Elizondo familia Arakilgo Etxeberrira joan zen 1968an.



Txurdan

Oharra: Miguel eta Margaritaren alaba Martina, Urritzan ezkonduko zen Miguel Olaetxearekin, hau ere ahuntzai ibilitakoa Larraun aldean. Beste baterako izanen da honen kontua.

Hiztegia


- **Apatxa:** pezuña.
- **Lagunkoia:** afable.
- **Ankerra:** cruel.
- **Landa:** vega, alor ibiltzen ziren lur partikularrak. Lur emankorrenak izaten ziren.
- **Burtzina:** sutarako burdinazko pala, kider luzea.
- **Ehortzi:** lurperatu.
- **Ahuntzaia:** batuan ahuntzaina da.



Miel, txekor gorri batekin jostaketan

Zaharrei ere errespeturik ez?

Ardo frexkotik



Euskal Herriko hiri buruzagian

Clemente Otamendi Artola, Beteluko *Lategiko* semea, Venezuelan misiolari urte luzez eta gure alderdiko hainbat tokitan apez izana. Erretiroa hartu eta Iruñeko Artzai Onaren xahartegira, azken urteak ematera.

Han izaki Juan Perez Ugalde azpiroztar garaia ere, *Lopitxeneko* semea, Ezkurran apez egona berrogeita hamar urtez edo. Biak ere hurbilekoak, auzokoak, eta euskaraz aritzen ziren elkarrekin beti. Aurki hiketan ariko ziren gainera.

Egun batean, egongelan ari omen ziren, zutik, ihardukian, eta moja bat pasatu omen zen ondotik. Nonbait euskaraz sumatu zituen eta atzera itzuli eta hala bota omen zien:

–¡Qué, no estamos en España! o ¿qué?

Bi xaharrak, mutu, lotsaturik gelditu omen ziren. Beren gazte denboran, beharbada, ez ziren isilduko baina... xahartutakoan kemenak ere alde egiten digu ta...

Moja ezjakina, alproja eta kopeta gaiztokoa. Zenbat horrelako ez dugu jasan behar izan? Nonbait, euskalduna beti menpeko!

Zer da, xahartutakoan ere errespeturik ez ote digute zor? Egia esan, erdaldunak errespetua zer den oraindik ez du ikasi. Euskalduna bigarren mailako hiritarra bezala tratuko du. Eta, dirudienez, guk, euskaldunok errespetua zor digute-

la ez gara jabetu. Gehiago oraindik, errespetua galdu digute gure apez jator hauei moja hark bezala. Egia esan, gure gidari politikoek ez dute askorik egin errespetua jartzeko.

Geron herrian, eta hala ere, kargu hartzen hasten zaizkigu!

Gaurko ardoa ongi mindua zegoen, bai horixe, ozpindua eta ozpin ustelaren kiratsa zerion. Alde egin dezagun, Iruñeko parte zaharrera, ardo frexkoa edanez, moja horren keru zikinak ea gure gainetik alde egiten digun!



Txurdan



▲ Juan Perez Ugalde hemen, Anotzibarren apezten izan zen apeztu ondoren, urteren bat

Hiztegia

Buruzagia: nagusia, kapitala.

Iruñea dugu Euskal Herriko burua.

Garaia: luzea, altua. 1,90 metroko altura edo omen zuen, diotenez.

Ihardukia: conversación.

Kemena: indarra (vigor).

Jasan: soportar.

Kiratsa: usain txarra.

Keru: usain txarra. Hedor. Gurean zehatzago erabiltzen da, haragia edo horrelakoren bat usai hartzen hasten denean, gustu txarra azaltzeko.



Zer irakurri

Ultzamako


liburutegia

BAT, BI, HIRU!

Otsaila, oso hilabete musikala izanen da, Ostiral Kulturaletan: kontzertuak, ikuskizunak, dokumentalak, zinema... Bat, bi, hiru! Bagoaz!

LA TOPADORA ETA ITOIZ TALDEAK

Programazioa **otsailaren 6an** hasi dugu, **La Topadora** taldearen kontzertu akustikoarekin. Eta nor dira La Topadora? Vendetta edota Skalariak taldeen musikari ohiek osatzen dute Iruñeko talde hau. Pello Reparaz ez dago, ezin delako leku guztietan egon, Jaungoikoa bezala, baina bere aintzinako taldekideek kontzertu akustiko bat eskaini digute. Lantzen dituzten erritmo guztiak fusionatu zituzten: rock eta ska, batez ere, baina baita elektronika edota rumba edo erritmo latinoak ere.



gabeko zinta batzuk aurkitu ondoren, Juan Carlos Perezek –Itoiz talde ikonikoaren liderrak– unerik gorenean taldea desagiteari buruz hausnartuko du, poperanzko estilo-aldaketaren ondoren (gaur egun ukatzen jarraitzen du aldaketa hori). Horrela, Juan Carlosek taldearen muinerako bidaia katartikoa hasiko du, 70eko hamarkadan hasi zirenetik Mutrikuko rock-talde progresibo gisa; iraganarekin adiskidetzeko balioko dio hori gogoratzeak”.

POESIA ETA HERRI KIROLA

Musika ere izango da hurrengo ikuskizunaren osagai bat. **Itzulerako bidean** jardueran Hasier Larretxeak, baztango poetak, besteak beste, herria, harria, herri kirola, poesia eta musika nahasten ditu, bere aitak, Patxi Larretxea aizkolariak, eta bere amak, Rosario Gortarik, lagunduta. Ekitaldi poetiko performatibo honetan familia bateko belaunaldi desberdinak daude presente, baita haien arteko isiltasuna eta dis-



Otsailaren 13an musikak jarraituko du, kasu honetan ez da zuzenean izanen, dokumental bati esker izanen baita. Euskal musika talde mitiko bati buruzkoa: Itoiz. Dokumentalak **Itoiz. Udako sesioak** du izenburua eta hau da sinopsiak esaten diguna: “Ordura arte ikusi





tantzia ere. Bidaia emozional eta poetiko bat proposatzen da horrela: ikuslea familia baten egunero-kotasunean murgiltzen da, haien oroitzapen eta zaurietan. "Guztia urruntzea da" (Susa, 2025) eta "Idaztea gibelera zenbatzen ikastea da" (Alberdania, 2024) liburuetatik abiatuta, literatur-bidaia emozional bat proposatzen digu. Testuek familia-memoriaren konplexutasuna eta idazketaren sendagarritasunean sakontzen dute, landa-eremuko sinbolismoa, magizismoa eta mistikarekin bat eginez. Ikuskizunak belau-naldi arteko hausturan du oinarria, familiakide bakoitzak egindako prozesu pertsonalari esker elkartze eta topaketa sinbolizatuz. Landa-eremuko iruditeria eta hauek sortarazitako soinu eta mugimenduez gain, herri-kiroletako zenbait elementu presente daude emanaldian: aikora eta harria. Patxi Larretxea, aita, ibilbide luzeko herri-kirolaria izanik, gure arteko erlazioaren eta elementu hauen transmisioaren eta kudeaketari buruz ere mintzo da ikuskizuna. **Otsailaren 20an, 19:00etan, Larraintzarko bentan.**



ORKRESTA LURTARRA, MUSIKARI TXORO BATZUEK OSATUTA

Bukatzeko, hileko azken ostiralean, txikiendako filme bat. Eta filme musikala, noski! **Orkestra lurtarra**. Bizitzan ezer ez da erraza, ezta bat-batekoa ere, baina aldi berean asko dago ospatzeko.

Hori oso ondo ikasi dute Orkestra Lurtarra arrakastara... edo ez... eramanen duten musikariek. Filmea Euskadi Saria irabazi zuen Harkaitz Canoren Orkestra Lurtarra liburuan oinarrituta dago, baina musikalki bestela landu dute eta baita istorioa ere, garaikideagoa eta ganberroagoa bihurtuz. Imanol Zinkunegik eta Joseba Poncek zuzendu dute eta azken honek musika guztia idatzi du; Harkaitz Canok berak eta Eneko Olasagastik josi dute gidoia. Eta emaitza lan txoro eta dibertigarria da, txikiendako zein helduendako aproposa dena. Pelikulako pertsonaiek arrakasta horren bilaketan biziko dituzten hartu-emanek gizar-tea ezinhobeto erretratatzeko dute: Manu ameslaria eta pixka bat tuntu-na; Salegi bizizale eta harroa; Perfumetti anai erromantikoak; Aldika orojalea; Osoki bihurri eta egoskorra, Presidentearen izeneko ahuntza... **Otsailaren 27an, 18:00etan, Larraintzarko bentan.**

ETA LIBURU BAT, JAKINA. (Eta zinema!)

Musika une batez alde batera utzita, hilabetero bezala liburutegitik liburu bat gomendatu nahi dizuegu. Posible al da nobela beltz bat poesia moduan kontatzea? Ezetz? Miren agur Meabek bere azken liburuan lortu du: **Amorante frantsesa**. "Bioletak hazten zaizkit ezpainen bueltan. Udaberriko / euriak bustita. / Beren urdinak gogorarazten dit / zein ederrak / izan daitezkeen / bakarrik dauden gauzak". Nola ira-



kurri Diane Wakoski izeneko poeta baten hitzak hilda agertu den ikasle baten pusken artean? Egutero etxerakoan bizkar gainera igotzen zaizkion itzalez inguratuta bizi da, basoan, kontakizun honetako protagonista, Agurtzane. 60 urte beteak, atezaina da ikastetxe batean eta bi egiteko nagusi ditu: osasun mental arazoak dituen ahizpaz arduratu eta berriz loratzeko sentitzen duen irrika asetu. Irati Beraza ikaslearen gorpua Artxandan agertu izanak, ordea, detektibe amateur bilakatu du. Lagunak, txakur adoptatu bat, urtegia, iraganeko absentsiak eta maitale berri bat gurutzatuko dira bere bizimoduan. Ezustekoz betetako bakardadea, basoko argi eta soinuekin nahastean. Poema bidez idatzitako nobela da Miren Agur Meaberen lan hau, pertsonaia arrunt baten epopeia xumea, thriller ukituekin.

Ezin dugu bukatu "Neguko zinema" zikloan proiektatuko ditugun pelikulak aipatu gabe. Hauek direlako horietako batzuk: "Gaua", "Faisanen irla", "Flow"... Adi beraz, kartelerari (Esan erran irratian, liburutegiko sare sozialetan edota Ultzamako Udaleko agendan).

 **Patxi Irurzun**



Zer ikusi

Amezti.eus

‘Nahieran’ atal berritua, irratiko edukiak entzuteko

Tokikomek hedabideontzako webgunean zenbait aldaketa egin ditu, eta ikus-entzunezkoak antolatzeke ‘Nahieran’ atal berria izanen dugu hemendik aurrera gure agerkari digitalean. Eduki guztiak bertan dituzue entzungai!

Irratsaio bakoitzaren txokoan denboraldi eta atal kopuruak ageri dira, eta sorpresa ederra hartu dugu irratiko kideok: Egun Ero magazinaren 8 denboraldi daude gordeta, guztira 814 atal. Egun Ero Kantuz ostiraletako saio bereziaren kasuan, 7 denboraldi eta 97 atal daude entzungai.

Webgunera igotzen ditugun kolaborazioen eta Broma Gutxi irratsaioaren atala ere ikusgai dituzue bertan. Tira, eta zer egon da azken hilabete honetan irratian?

Ultzamako Gazteen I. Podcast lehiaketa

Badakizue Euskara Mankomunitateak, Ametza elkarteak eta Esan Erran irratia elkarlanean podcast lehiaketa antolatu genuela, eta entzungai dituzue honezkeroko podcast originalenaren saria eraman zuena eta podcastik onena. Musikari eskainitako podcast berezia da originalenaren saria irabazi zuena, Itziar eta Imanol

Olague anai-arrebek egindakoa. Podcast onenaren kasuan, berriz, Larraintzarko ikastetxeko Nerea Larraintzar, Arhane Etxenike eta Oihana Rezabalek eraman zuten saria, euskal literaturari eskainitako lanarekin.



Entzun



Entzun



Dokumental bat eta telesail bat, zinema kolaborazioan

Jule Goñi erasoarrak gidatzen du Egun Ero magazineko *Spoiler Alert!* zinema kolaborazioa. Hilabete honetan, ‘Poquita fe’ telesaila eta ‘Queer as punk’ dokumentala gomendatu dizkigu. Bikote krisi betean dauden Berta eta Jose Ramonen istorioa kontatzen du telesailak, etxetik bota berritan emaku-

mezkoaren gurasoekin bizitzera joanen dira denboraldi baterako. Dokumentalaren kasuan, Malaysian, gehiengo musulmana duen herrialdean, queer banda baten ibilerak kontatzen zaizkigu bertan. Faris transak gidatzen du punk taldea, eta kontzertuetako eta kaleko protestetako giroak jasotzen dira ikus-entzunezkoak.

Entzun





Broma Gutxi, 38. Irratsaioa

Eguberrietako deskantsutxoa eta gero, martxan da berriz Txominek gidatzen duen Broma Gutxi

saioa ere, ilbeltzaren 15ean 38. atala emititu zuen.

Beti bezala, punk eta hardcore doinuak nagusi dira saio honetan, Txominek zuzenean jarritzen dituen biniloetatik jarriak.

BROMA GUTXI



Entzun

Kapitolioko erasotik 5 urte, 'Memoriaren txokoa'

Ilbeltzaren 6an bost urte bete Ziren AEBetan Donald Trumpen eskuin muturreko jarraitzaileek Kapitolioa hartu zutenetik. Efermeride hori landu genuen urteko lehenbiziko Memoriaren txokoa. Gertaeraz beraz, garaiko AEBetako testuinguruaz eta Trumpen lehenbiziko legealdiaz aritu ginen, besteak beste.



Entzun



Sudango gerraz, internazionalismo atalean

Ilbeltzaren 21ean izan genuen internazionalismo kolaborazio berri bat Txuri Oloko goldaraztarraren eskutik. Beti bezala, munduko

herrialde desberdinetako errealitateak ulertzeko argigarria izan zen kolaborazioa. Hilabete honetan, Sudani buruz aritu zitzaigun imoztarra. Izan ere, gerra zibil gisa saltzen duten horren atzean dagoena azaldu zigun, askotan bezala, herrialdeko baliabideetako kanpoko interesek pisu handia dute gertatzen ari den gatazkan.



Entzun



Etxauritik Perura, bide berri bat zabaltzeko

Andeetan, Puscanturpa mendian 300 metroko bide berri bat ireki zuen Ander Uria iraizoztarrek Urko Zabala eta Aritz Aparizio eskalada kideekin batera. *Galdu eta Irabazi* izena jarri zioten 7b mailako bideari. Bidearen zailtasunari, Peruko altuerak eragiten duen garaiera gaitza gehitu behar zaio, eta eskalatzaileek egun batzuk behar izan zuten egokitzeke

Ekainean iritsi ziren Peruko Andeetako hiriburura, Huarazera. Helburu nagusia, Puscanturpa mendiko pareta ikusgarri batean bide berri bat zabaltzea. Eta lortu zuten. Hori bai, mendi magalera iristeko bakarrik, lehenengo zazpi ordu egin behar izan zituzten kotxez, pista galduetan barna; eta, beste bi egun oinez, gero. Baina ondoren etorri zen zailena, prismatikoak hartu eta pareta aztertu, haiek irekiko zuten bidea hautatu eta trazatzeko. Azkenik, materiala prestatu eta, gora. Gorriak ikusi zituzten lehenengo luzeko arrakala batean, han jarri zuten bideko txapa finko bakarra. Baina eguraldiaren gorabehera ere aurre egin ez, lortu zuten.

Erronka nagusia eta zailena lortzeaz gain, beste bide batzuetan ere ibili ziren, Perun eman zituzten 30 egunetan. La Esfinge mendi ezagunean *La clásica 85* eta *Cruz del Sur* bideak egin zituzten.

Etxauritik Perura. Andeetara eta Mendikate Zurira, hitz potoloak dira. Nola sortu zen hara joateko ideia?

Etxaurin. Urko eta biok hemen pasatzen dugu egun gehiena, hemen ezagutu ginen eta askotan eskalatzen dugu elkarrekin. Berak proposatu zidan eta bi helburu garbi genituen, haietako bat bide bat irekitzea.

Zergatik aukeratu zenuten Mendikate Zuria edo Cordillera Blanca deritzona? Zerk erakarri zintuen?

Peru betidanik izan da famatua, eskalatzaileen artean. Eguraldiak laguntzen du. Garai lehorra ekainetik abuztura izaten da eta Nepalen zailagoa da eguraldi ona harrapatzea. Harataino joatea eta gero ezin eskalatu, asko arriskatzea da. Zentzu horretan Perun errazagoa da eskalatzea. Lagun bat joan zen urtean egon zen eta pareta horren argazki bat erakutsi zigun, eta interesgarria iruditu zitzaigun. Hara joateko logistika dena prestatu, eta abiatu ginen.

Han mendi altuak dira, pareta oso luzea zen?

Hiria bakarrik, Huaraz, 3.000 metrotara dago, beraz, mendiak 4.000-4.500etik gora hasten dira. Guk hau-

tatutakoa gutxi gorabehera 4.900 metrotan hasi behar genuen eta 5.300 metro baino gehiagora arte. Hau da, 400-500 metroko pareta bat zen.

Altuera horretan, gainera, oxigeno aldetik ere zailtasunak izanen zenuzuten. Nola prestatu zineten?

Hirian izan ginen ostalean esan zигuten: «*El que no aclimata aclimure*, hau da, egokitzen ez dena hiltzen da». Lehenengo astean lasai ibili ginen, Huarazera itzultzen ginen lotara. Kirol eskalada ere egin genuen *Hatun Machayen*, oso leku interesgarria eta polita da. 4.200 metrotara dagoen toki lasaia. Garaiera gaitza, ohitua ez zaudenean, nabari da, bai. Baina egun



La Esfingen, tontorra jo berria. Ezk.-esk: Urko Zabala, Aritz Aparizio eta Ander Uria iraizoztarra



Urko Zabala, hango herritar batekin solasean ▲

“ Dena da interesgarria Peru bezalako herrialde batean zaudenean. Ez bakarrik eskalatzea ”

batzuk pasatzen direnean gorputza ohitzen da eta gero, beharbada, mantsoago mugitu behar zara, baina lortzen duzu altura horretan eskalatzea.

Eta paretara igo bitartean, zer izan zen zailena?

Lehenengo, erabakitzea. Paretara igo zabala da eta zer lerrotik igo erabaki behar genuen. Urkok eta Aritzek, biek dute esperientzia eta hiruon artean ikusi genuen zein zen lerro interesgarriena. zulgailurik ez erabiltzeko fisurak zituen lerro bat nahi genuen. Igual hori izan zen zailena, erabakitzea, eta erabaki eta gero, sartzen ausartzea. Ondoren, behin paretan geundela, pixkanaka gora joan ginen.

Gogorra bezain ederra izanen zen. Zer nabarmenduko zenuke?

Nik izugarri disfrutatu nuen bidaia, osorik eta hasieratik. Hegazkinetik

jaitsi nintzen momentutik beretik. Hautatutako paretara guztiz isolatuta dagoen toki batean aurkitzen da. Beraz, mendilerroarainoko bidaia oso polita izan zen eta pasa genituen herri guztiak ere, ederrak. Hura taxiz egin genuen. Ondoren, bi eguneko trekkinga egin behar genuen mendi magalera iristeko. Bertako mandazainarekin egin genuen, astoekin materiala eramaten zigun pertsona da bera, eta oso interesgarria izan zen. Harekin hizketan, oso gauza interesgarriak kontatu zizkigun, bere bizitzeko moduz. Dena da polita, ez bakarrik eskalatzeko momentua. Dena da interesgarria Peru bezalako herrialde batean zaudenean.

Bigarren helburu bat ere bazenuten. La Esfingera eraman zintuena, ezta?

Bai, mendi famatua da La Esfinge, 2.000. urtean bideak irekitzera eska-

latzaile pila joan zirenetik. Gaur egun bi bide egiten ohi dira. *La clásica del 85*, guk ere bigarren egunean egin genuena, eta *Cruz del Sur*. Bigarren hau pixka bat zailagoa da, 7C+ eta paretara oso luze bat du, 800 metrokoa. Erraza da galtzea, gauez egin behar izatea, eta horrelako altueran gauez egitea ez da aukera bat. Helburu hori ere lortu genuen.

Peru aipatu dugu, baina, non gehiago ibili zarete?

Peña Montañesan ere egon gara, baita Alacanten eta Montanejosen ere.

Eta, hurrengo erronkarik ba al duzue?

Urko Madagaskarrera joanen da uztailean eta nik posible badut -oposaketa batzuk iragartzearen zain baina go- animatuko naiz. Madagaskarren ere paretara luzeak daude.

Espedizioa

Paretan bi bide zeuden zabalik, bat frantsesa eta bestea holandarra. Hirugarren bat ireki dute, bide bertikalenetik. Zortzi luze eta 300 metroko eskaladaren ondoren, egunean bertan jo zuten tontorra.



Galdu eta Irabazi bidea

- Huayhuas mendilerroa bakartu eta basatian.
- Puscanturpa Este, 5.410 m.
- Iparraldeko aurpegian.
- Harria: basaltoa.



Jaiotzak, ezkontzak
eta heriotzak

2025eko abendua

**2025eko abenduan gure alderdian izan ziren jaiotza,
ezkontza eta heriotzak:**

Jaiotzak:

BASABURUA

Berute

Mattin Arrarats Jauregi, abenduaren 31n jaio zen **Garaikoan**. Xabi eta Leireren semea.



“ Aupa bat gure
gurasoei! ”

▲ Mattin Arrarats

ULTZAMA

Arraitz

Ekain Osinaga Larraiotz, Imanol eta Amaiares
semea, abenduaren 16an sortu zen **Balentenean**.



▲ Ekain bere arreba Iratirekin



Heriotzak:

BASABURUA Orokietza

Trini Etxegia Zenotz, **Antsoneko** etxe-koandrea, abenduaren 19an hil zen 87 urtetan.



▲ Trini, orokietarra

IMOTZ Gartzaron

Maia Carmen Zudaire Subiza, **Maritone-beitiko** etxe-koandrea, abenduaren 19an hil zen 71 urtetan.



▲ Carmen

ODIETA Latasa

Simon Iraizotz Ollakarizketa, **Bernartekoneko** nagusia, abenduaren 16an hil zen, 87 urtetan.



▲ Simon, Bernartekoa

ULTZAMA Alkotz

Ignacio Goienaga Villabona, **Argiñene-ko** nagusia, abenduaren 24an hil zen 94 urtetan.



▲ Ignacio Goienaga

Eltzaburu

Vicente Iribarren Arangoa, Carmen Etxarriren senarra, abenduaren 23an hil zen 81 urtetan.



▲ Bixente

Gorrontz-Olano

Nieves Ostitz Zarrantz, **Petroneko** alaba, abenduaren 29an hil zen 64 urtetan.



▲ Nieves

“ Beti izanen zaituztegu gogoan ”




pulunpe

Pulunperekin kolaboratu nahi al duzu?

Irakurleok konturatuko zineten askotan argitaratzen ditugula eskualdeko herritarrek bidaltzen dizkiguten erreportaje edo artikulua. Izan ere, gure hilabetekaria eta gure erredakzioa zuendako zabalik da. **Historioren bat argitaratu nahi baduzue**, zuen herrian aurrera atera duzuen egitasmo baten inguruan informatu, aspaldiko konturen bat gogoratu edo gutunen bat publikatu, bidali pulunpe@ametz.eus helbidera eta pozik aterako dugu Pulunpen.

Bestetik, beti bezala, ale bakoitzeko erdialdeko Saltsa Purrustak ere **zuen laguntza behar du**. Herri guztietako lagunak ikusi nahi ditugu bertan, eta, horregatik, bidali zuen argazkiak gure helbide elektronikora. Tira, ihote garaian gaude orain, ziur irudi polit politak bildu dituzuela!

Honen inguruan eta beste zerbaiten inguruan edozein zalantza duzuela ere idatzi dezakezue edo deitu Esan Erran irratora: **948 50 32 32**.





Ametzaren txokoa

Helbide elektroniko berriak

Azken denboraldiko sare sozialen eta beren nagusien portaeren eraginez, domeinu propioa duen posta erabiltzea erabaki da.

Gure helbide elektroniko pertsonalizatua izateak, elkartearen izena islatzeaz gain, irudi fidagarriagoa eta sendoagoa emanen dio, inguru profesionalean nola gure bazkideen aurrean.

Gure domeinua **ametza.eus** izaten jarraituko du eta posta helbideak hauek izanen dira:



pulunpe@ametza.eus
esanerran@ametza.eus
amezti@ametza.eus
publi@ametza.eus
bazkideak@ametza.eus
ametza@ametza.eus

Aldizkariaren gaietarako
Irratiaren gaietarako
Agerkari digitalaren gaietarako
Publizitate gaietarako
Bazkideen mezuendako
Elkartearen gaietarako

Gure domeinua denez, helbide elektronikoaren eta erlazionatutako datuen gaineko erabateko kontrola dugu, kentzeko eta gehitzeko ematen duen malgutasunarekin.

Aldi berean gure elkartearen interneteko presentzia indartzea ekarriko digu eta sendotasunez agertzea. Baina, batez ere, konfiantza handiagoa eragingo du: gure ingurukoekin, bazkideekin, irakurleekin, entzuleekin... bere informazioa noren eskuan dagoen jakitearekin.

GOTELET-A
KENTZEA

FATXADAK
ZAHARBERRITZEA

IRAGAZGAITEA
(IMPERMEABILIZACIONES)

DAVID ELIZONDO PINTURAK

DEKORAZIO ETA INDUSTRIA PINTURA

KALITATEA
ETA
GARBITASUNA

AURREKONTUA
KONPROMEZURIK GABE

678623866

ZIAURRITZ · argapin@hotmail.com

Eskatu **Nafarroa erdi eta hegoaldeko** oliba-olio
birjina estra, kontserbak, ardoa, arroza, pasta eta
lekaleak **euskaraz etiketatuta eta**
jatorrizko prezioan



ESKUTIK ESKURA EGITEN DUGU HERRIA

errigora.eus

otsailak 26-martxoak 18